

MAHAI NEGOZIATZAILEA 2022/03/28**LEP**

Hezkuntza sailak, 2022 urtean, dagoeneko eginda dagoen eskaintza zabaltzeko proposamena egin du.

Beste 60 lanpostu eskaintzeko proposamena egin du. 57 HLE eta 3 gizarte langile. Horrela geldituko litzateke eskaintza datu hauek kontuan hartuta:

HLE 476

Fisioterapeutak 13

Okupazio terapeutak 10

Transkriptoreak 4

Zeinu hizkuntzako interpreteak 14

Gizarte langileak 3

GUZTIRA: 520

LABetik, gehikuntza hau positiboki baloratzen dugun arren, **ez dugu uste gure kolektiboak dituen beharrak asetzen dituenik**. Eskaintza berri honek, jardun osoan dauden lanpostu gehienak barnebiltzen baditu ere, **jardun erdiko lanpostuak kanpoan** uzten ditu. Beraz, gaur egun, **jardun erdian dauden 196 lanpostuen azterketa egingo du**. LABen formularik egokienak bilatuko ditugu.

LABek gizarte langileen egonkortzean egindako borroka emaitza izan du eta gaur egun dauden lanpostu guztiak egonkortzea lortuko dugu. Hemendik aurrera ere, gizarte langileek hezkuntzan egiten duten lanaren defentsa egiten jarraituko dugu.

Deialdiari begira ere jardun ginen arren, ez zuten proposamen idatzirik ekarri. Berriro ere, administrazioak eta sindikatu guztiak, hezkuntza sailan emandako lan esperientziak berariazko puntuazioa izatearen garrantzia azpimarratu genuen.

LEPerako puntuazioari begira, **hezigunean, apirilaren 4ean, argitaratuko dituzte hezitzaileok hezkuntza sailan emandako zerbitzuak**. Lan esperientzia ongi jaso dagoen konprobatzeko aukera emango digu honek.

Ahalik eta langile gehien prozesu honetan finkatzea lortu behar dugu!!!

BAKANTEEI UKO EGITEKO AUKERA

Hezkuntza sailak, hizkuntza perfilen inguruko gatazka bati konponbidea emateko, salbuespenez eta behin bakarrik bakante kontratuari uko egiteko aukera zabaldu nahi die, hiru urtez jarraian bakante bat betetzen egon diren langile guztiei.

LABetik, bakantei uko egiteko aukera egotea egokia dela ikusten dugu, baina hizkuntza eskakizunen gatazka konpontzeko bidea ez dela hau ere, argi esan genuen atzoko bileran. Euskarazko hizkuntza eskakizuna daukan lanpostu bat izateagatik, hizkuntza eskakizunik gabeko lanpostuak aukeratzeko ezintasuna ez dugu ontzat ematen. Ez dugu uste langileok bakanteari uko egin behar diogunik perfil desberdina duen lanpostu bat aukeratzeko. Horretarako bidea, ikasturte hasieran finko eta bakanteek egiten duten esleipena dela deritzogu.

LAB sindikatuak bere aldetik, **UTEetako langileak ere berritzegune bati atxikitzea** proposatu genuen. Horrela, lehen aipatutako ikasturte hasierako esleipenetan parte hartuko lukete beren kontratuei uko egin behar izan gabe.

Aldi berean, **uko egiteko prozedimendua negoziatzeko beharra adierazi genuen LABetik. Ez dugu uste administrazioak planteatzen dituen aukerak nahikoa direnik.** LABen ustez bakante kontratu bati uko egiteko aukera **urtero** eskaini beharko litzaiguke, **esleipen prozesuen hasierako urrats** bezala eta **urte batez jarraian bakante bat betetzen egotea nahikoa** litzatekeela uste dugu.

Ordezkapenei ikasturte bukaeran uko egiteko aukera ere zabaldu behar dela adierazi genuen.

Argi esan behar dugu, bakante kontratu bati uko egiterakoan langabezia prestazioari uko egiten zaiola, baita indemnizazioa jasotzeko eskubideari ere.

ORDEZKAGUNEA

Lortu dugu! Atzo esan genizuen bezala, **mahai negoziatzailean ordezkagunearen akordioa sinatu genuen!**

EAEko Hezkuntza Saileko Hezitzaileontzat ere **martxan egongo da ordezkagunea maiatzaren 9tik aurrera**, LAB sindikatuak egin dituen ekarpen gehienak kontuan hartu dituztelarik.

Gauzak horrela, lehenbailehen lotura honen bidez, Ordezlagunearan helbidea, emaila eta telefonoa betetzea ezinbestekoa da:

<https://ordezkagunea.euskadi.eus/eu/login>